

Arantxa Olabe Leibar

*Arrasate
Gipuzkoa (1947)*

Aurkibidea

Biografia



Gesalibar auzoko Enuzketa-aldekoa baserrian jaio zen 1947an eta bertan bizi izan da beti. Gesalibar auzoan bertan ibili zen eskolan. 16 urterekin Arrasaten hasi zen lanean fabrian eta 10 urte egin zituen bertan, harik eta ezkondu zen arte. Bi alabaren ama da. Grabazioa bere ama Asuncioneekin batera egin zitzaion eta Carmen ahizpak ere hainbat azalpen eman zituen.

Zintak

ARR-042

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Arrasate.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-02-10
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa
- **Transkribatzailea(k):** Elortza, Kepa

ARR-043

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Arrasate.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-02-10
- **Iraupena:** 40 min
- **Euskarria:** MiniDV

Pasarteak

1. Sua belartegian

- **Erref:** ARR-042/001
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Etxeko belartegiak su hartu zuen, baina lortu zuten itzaltzea. Horren ondorioz elektrizitatea kendu zuten belartegitik.

2. Gorrien dirua

- **Erref:** ARR-042/002
- **Iraupena:** 0:04:50. **Hasi:** 00:01:28. **Bukatu:** 00:06:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Gorriei ardiak saltzen zizkieten diru truke. Miliziano gaixoak edukitzen zituzten etxean. Horietako bat, mortero-hotsa entzun orduko, "gorrien dirua" eskatzen hasi zen.

Transkripzioa

- (Arantxa): hemen euki auen kuartela eta orduen honeik ardixak aukien eta beorrek kontaitten (di)ttu kriston istorixak, zela ardixak kentzen otsien eta, gurien por ejemplo diru gorrixa badau, Euskadiko dirua, lehengo... Eta zela azkenien batek in utsien, emun dirua bestela... beorrek kontaitten (di)ttu.

- (Asun): hola ez zan. Nire aittajaun zan baserrittar haundi bat eta gaiñera karlistetako gerran ibilixe. Eta harek esaten auen, guri esaten oskun: “zuek ondiok gorrixak bizi biher duzue, gorrixak, ogirik be ez dozue euki biher eta artorik be ez jateko”. Hola esaten oskun. Nik hori ez notsan sinisketan eta gero hasi zan abanziori eta nire amak hemen famelixia gordetan guk gorrixakin egon gintzen, eta gorrixak itten auen famelixak euki ba hiru-lau lagun-ta. Durengon ta hor eukienak hamabostian behin emoten otsien permisua etxera fateko saldaueri eta esaten auen, ba komo hor zelan da Bilbon ez dauen ezer, eta Durangon be ez dauen ezer, ba hemen ardi bat hil ta zakuen sartu eta erueten zittuen famelixarako etxera. Eta hola egindda geuken guk diru apur bat.

- A, baiña ordainddu egitten zittuein.

- (Arantxa): bai, bai.

- (Asun): eta orduen ba ardixorrekin eta tortillak itten zittuenak etxien eta geixo batzuk eukitten gittuan etxien ogia ipini bai, eta...

- (Arantxa): bai, nazionalistak geixorik egozenak.

- (Asun): eta dirua ba esan dotena, gorrixen dirua esaten otsen, eta ondiok be badau. Eta azkenian abanzia hasi zanien, gerran abanzia hasi zanien, nire aittajaunek gerrikua ibiltten auen, hola fotografixia hor dago ondiok nere aittena, aittajunena, gerrikua eta beti pipia ezpanien, eta miliziano bat euki gauen hamabost egunien, geixorik euela [...] esaten otsein izena eta “servirme un café con leche, servirme un caldito de puerros”, eta marikito bat euki gauen. Abanzia hasi zanien eta entzun auenien, Larratxutik hasi zan abanzie, hasi zan bonbardeua, ta ziren morteruek esaten gotsen orduen, ta morteruok, batek hementxe ate aurrekaldien errebentau auen eta ezebe ez zan pasau, eta beste bat harutzatxuau. [...] gizon horrek, lehenenguan salto in euan, “ya voy”, ta aittak, nire aittajaun hemen, aitta idixakin junda euen hortik zihar, eta nire aittajauna hemen, ez erderaz eta ez erlojurik igarten, eta ezebe ez akixen. Amari “suelta las vacas que tienes en casa, suelta!, todas, que vamos a llevar a Vizcaia”, harek. Amak holaxe jarri eta ¿“Serás capaz de hacer eso a mí, después de tantos días que te he tenido en la cama?” “Si, si, si señora si, si”. Ha jun in zan. [...] eta beste bat Mondrauekua [...] Mondraueko bat etorten jaku. Nire anaie [...] Etorri jakun etxera eta esan oskun: “zuek eukiko dozue ba gorrixan dirua, eukiko dozue ba”. “Bai, bai, eta zueri ez dotsue balixo biher eta hori diruori emun iguzue eta zeuen semiari eruen goutsou Bilbora”. Eta aittajaunek: “zer esan jon horrek?”, “emuteko dirua, semiari eruengo dotsala Bilbora ta”. Eta bestiak: “dirua gordeteko leku gutxi biher dok”. Hartu amari eskutik auken diruek amak semiendako emuteko gordeta eukena, hartu amari eskutik diruori eta sartu gerrikuan ta pentsaten dot hil artian eduki ete deu han gerrikuan diruori. Ondiok hementxe daz hareik diruk, hementxe.

3. Aitajaun karreteroak erlojua erosi

- **Erref:** ARR-042/003
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:06:18. **Bukatu:** 00:09:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Asunzionen aitajaunak, nahiz eta erlojua irakurtzen jakin ez, Axpeko meategietan karretero zebilela erlojua erosi eta etxera ekarri zuen gurdian. Erloju hura oraindik martxan dago gaur egun.

Transkripzioa

- Gero [...] Ez dakit zer ingo zala eta badakit zer ingo zala eta baten batzueri esan gotsen, badaukogu ba guk dirua, gerra denporako dirua, eta horreik gero balixoko dauela, gero balixoko biharko dau, oin ez dotsue balixo ta. Eta hemen dagoz gordeta.
- Horreik igual balixua eukiko daue e?
- (Arantxa): neuretzako bai.
- Sentimentala alde batetik, baiña...
- (Arantxa): zenbat urte dire, hirurogeta hamar urte-edo zenbat dira gerria pasau zala.
- Ba hirurogeta hamabi ya.
- (Arantxa): ba hirurogeta hamabi, neri hirurogeta hamabi urtien etxian egon badira, hemen dauen hau erloju hau, horrek esaten dauena aittajunak ekarritakua da. Arrazolan minatan lana egin, idixakin, minan Arrazolan, Axpe-Arrazolan, idixakin juanda bai, Axpen. Eta berak erlojuari igarten jakin ez, dirua ezaguketan be ez, baiña han hartu idixak, etorri Arrasatera, Arrasaten erosi eta ekarritakua da.
- (Asun): ez, hola ez.
- (Arantxa): edo zela zan, Axpen edo Durangon erositte?
- (Asun): han bost duro, aste guztian lana egindda idixakin-tte, bost duro pagau; zuek ez dakitzue horreik, busarrixak izaten ziren, erruera bi eta holako zer bat, burdiñazko...
- (Arantxa): tronkuak eruateko.
- (Asun): tronkuak eruateko eta zerak, minatan karruakin hara eta bestera, eta bost durukuori emun otsenien [...] beti pipia ezpanian eta adurra darixola ibiltten zan, hartu idixek, juen Durangora, hartu erlojua burdixen eta etxera. "Baiña zer ekarri dozu?", "Ba hau Mondrauen eginddako erlojua", "no se cuantos Praderas" esaten auen berak.
- (Arantxa): izena be, izena badauko horrek.
- (Asun): Mondrauen eginddako erlojua zala, haxe hartu eta ekarri eta hemen dau.
- Ondiok be?
- (Arantxa): bai, eta martxan e?
- (Asun): [...] ijitanuak etorri eta ikusi euen erlojuori, "¿me vendes?", "No, por dinero no".
- (Arantxa): neuk be ez neuke salduko.
- Beste hirurogeta hamar egongo da.
- (Arantxa): ondo bada bai, porke ezebe ez dauko, e? Petroleuaz edo garbiketean daue ta... noizian behin kuerdia emun eta esaktua baiña hola, ez dau holako...
- Burdixen ekarritakua.
- (Arantxa): burdixen ekarritta, orduan aber! Kamiñua in zala be zenbat urte dira ba ondiok, berrogeta...
- Karreterua zeuen aittajuna, e?
- (Arantxa): bai, honeik eurok be bai, asko egindda dagoz karretero e?

4. Amonaren jokaera telebista iritsi zenean

- **Erref:** ARR-042/004
- **Iraupena:** 0:05:08. **Hasi:** 00:09:08. **Bukatu:** 00:14:16

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Aitajauna hargina zuen Arantzak; aita, ordea, baserritarra eta karretero. Etxeko nagusien gogoz kontra, baina traktoreak azkenean baztertu zituen idiak. Arantzaren amonak arazoak zituen erdararekin; telebista etxera iritsi zenean, berriz, mezak belauniko entzuten zituen etxean. Zelako asmakizuna telebista!</p>

Transkripzioa

- Arantxa: Aber, baserriko... nire aitte eta ama baserritik bizitte daz betik. Ni, zazpi urte naukela ardixek kendu zien hamen. Ba bizimodue baserritik atara daue. Nire aittajaun, horren aitte, hargiñe zan. Bai, hargiñe. Baiñe aitte betik ganauekin ta... ba mendixen. Murugaindik paguek bajaketan Santa Agedara akordetan naz.

- Baiña egurra zerretarako-edo?

- Ar.: Bai, bai, zerretarako. Zerretarako. Nire aitte betik...

- Asun: [...]

- Ar.: Idixekin, orduen ez euen pistaik!

- Oñatin in xau karretero bati. Zenbat urte dako harek? Larogeta... hamar ixa, ezta?

- Ar.: Ba nire aitte ingo zittuan bizi izen bazan larogeta zortzi, zazpi-zortzi. Nire aitte asko itten auen idixakin.

- Ha bizi guztian karretero. [...]

- Ar.: Ba gurie be bai. Betik.

- As.: Hareik gero harro esaten auen, e? Nire aittajunek eta harro esaten auen, e? Aitte be bai eta aittajaunek be bai, aittajaune be karreterue zan. Ta harek esaten auen: "Alperrik etorriko dittuk adelantu haundixek, idixen adarrak moduko jenerorik ez dok etorriko!" Esaten auen. Etorri bai etorri. Oin ez jak!

- Ar.: Bai. Lehenengo traktorie ekarri gauenien, ni, horren aitte, eta hak pentsetan auen traktoriek ez auela lanik in biher. Eta idixek azen etxien e? Traktorie ikusi auenien, oin gure badozu kendu, oin gure badozu kendu idixek. Baiñe ordura arte? Beretzako idixek zien ba mundue.

- Besterik ez eben ezagutu harek.

- Ar.: ez. Nire amandrie be, nire amandriek erderaz oso geixki itten auen, ez auen ulertzen eta lotsatu itten zan, barriz. Enda hola kanpokoko bat erdelduna etorten zanien etxera, esaten auen: "Ume, urten, urten kanpora horrek barre ingo jone eta, urten". Akordetan naz nire aitzie, ni baiña zazpi urte gaztiaue da, eta egun baten esaten dutso: "abuelita, ¿buena venta?". Plazara juenda. Eta orduen kaleko ogixe ekarten oskun, baserrikue eukitten gauen, baiña kaleko ogixe umiei, eta "¿buena venta?, "a ti no te importa ni buena ni mala, a ti te importa la pa tñ". Eta telebisiñue berdin, telebisiñue lehenengo etxera ekarri zanien...

- As.: [...]

- Ar.: Bai, baiña nik etxien esaten dot. Etxera etorri zanien lehenengo telebisiñue, nire amandriek mezie belaunbiko entzuten auen.

- Telebisiñoko mezia?

- Ar.: Bai, eta fede bateaz! Egun baten, gu neskatiak, klaro, oin komunetan be dauketzu ur berue, dutxie eta otxokuartuek, baiña orduen ezebez, sukaldien garbiketan gitzen, eta banabil garbiketan ta martxan, eta: "Ume, ezkutau hai! ez don ikusten begira dazena danak heuri ala?" .

- Nere amandriak be ez eben sinisketan zela sartzen ziren hainbeste gauza holako kaja txiki baten.

- Ar.: Neuriek be ez. Beste behin badau, zezenak izugarri gustetan jakon, aittajunai be, aittajunai eta amandriai bixei, eta zezenak ipintten dotseu ta: "Auxilio! Auxilio!" Ni hor kanpuen nunbaitten, etorten naz: "ze pasau da amandria?" Eta, "ze pasau dan? Ez don ikusten zezen danak ezkatzera datozela ala? Kendin hori kajioi!". Onbre, eurentzako telebisiñue zan...!

- [...]

- Ar.: Amandrie hil zan oin hogeta hamahiru urte-edo, baiñe zan bizi guztien baserrixen [...] andra bat, errebentaute lanien, herniaz, "hernia estrangulada" bateaz hil zan. Hernia eukala eta ekarri medikue eta medikuei esan utsen sukaldeko mahai gaiñien operetako. Eta "zeatik ba?", ta berak etxetik jutie ez euela gure, bera geldigeldi egongo zala. Kuittaua!

- Geldigeldi egongo zala, e?

- Ar.: Bai.

- Sekula medikuan egon barik igual.

- Ar.: Askot egon barik, bai.

5. Emakumeak nagusi Enuzetan

- **Erref:** ARR-042/005
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:14:16. **Bukatu:** 00:16:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Arantzaren aurreko belaunaldiak gaitzak osatzeko beste era bateko tratamenduak erabiltzen zituzten. Azken bi belaunaldietan, Enuzeta baserriaren ugazabak etxean jaiotako emakumeak izan dira.

Transkripzioa

- (Arantxa): Behin-o neuk eruen auen, ez jakolako jana ondo asentetan eta botaka itten auen, egun asko-ta. Eruen auen eta medikuak esan nosten... jan be itten auen porru-patatak, tortillia, esnia; beste bat jaten baten, kalte itten otsen, eta medikuek esan nosteran "tiene un desgaste físico tal...". "Neu tisiko? Neu? Arrautzak etxien eta tisiko?" Tisiko tuberkulosa zan orduen, eta akordetan naz itten auen, oillua zainddu, arrautzia itten auena arrautzia "Vino Sansónegaz" edan, eta mejorau in zan e? Berari holako lotsagarrikixarik, tisiko bera! Gosiek!

- Etxien arrautzak egonda! Hori Sanson arrautziakin neuk be hartuta dakot umetan.

- (Arantxa): Orduen geixuak bixitetan Sanson botellia erueten zan.

- Bai, halaxe da, ardau goxua, guk esaten gotsan ardau goxua.

- (Arantxa): Bai, oin ez dakit dauen be.

- Egongo da igual.

- (Arantxa): nik ez dakit.

- Markia igual ez, baiña ardau goxua bai.

- (Arantxa): Bai? Badago? Nik erosketan be ez dot pentsetan, baiña bueno, orduen.

- Bai, ardau goxua, umia geixorik eta ardau goxua pittintxo bat.

- (Arantxa): Ene, "por dios", orduen! Guk ze geukan ba? Ezebe ez geukan eta. Ezebez e? Kamiñorik be ez, dirurik be ez, ezebez. Eskolara fan eta eskolatik lanera eta lanetik etxera.

- Zu zer zara, hemen jaixua?
- (Arantxa): Bai, bai. Nire ama be bai. Emakume [...] "en mando".
- Emakume zeretik dator e?
- (Arantxa): Beorren aitta hemengua zan, gero ama eta oin ni. Nik be neska bi daukat, oseake bixar edo etzi be.
- Orduan zure gizona ezkondu zan hona.
- (Arantxa): bai.

6. Santa Agedako gaixoak baserrietan

- **Erref:** ARR-042/006
- **Iraupena:** 0:03:34. **Hasi:** 00:16:06. **Bukatu:** 00:19:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Garagaltza, Gesalibar, Santa Ageda eta Uribarri auzuneei buruzko azalpen batzuk ematen ditu Arantzak. Santa Agedako ospitalean 1.500 emakumeraino egon ziren garai baten. Ospitalea izan aurretik bainuetxea zen Santa Agedakoa. Canovas del Castillo bertan hil zuten. Arantzak gogoratzen du garai batean Santa Agedako gaixo askok inguruko baserrietan lan egiten zutela. Hori horrela izan da orain dela 10-12 urtera arte.

Transkripzioa

- Eta Gesalilbar auzua da hau, ezta?
- (Arantxa): bai. Santa Ageda da, "patrona de Santa Ageda". Lokepasa esaten dogu, lehen Gesalibar, Santa Ageda ipiñitakua dala sikiatrikuak-eta etorri ziranien-o.
- Izena da Geslibar.
- (Arantxa): bai.
- Ni oin aurrekuan zurekin egon, eta gero fan nitzan medikura eta atzera etorri nitzan zeatik fan bihar nitzan Bazterrazpikora. Eta Bazterrazpikuan ikusi neben fatxadan Uribarri auzua.
- (Arantxa): bai.
- Eta neri esan nostaiz zu ziñala Garagartzza, Santa Ageda-Garagartzza.
- (Arantxa): ni naz jaixotez Garagartzakua porke hau da Garagartzza zan.
- Zu ez, zure etxia.
- (Arantxa): bueno, hau etxiau. Etxe bixok.
- Osea lehen Garagartzza zan orduan.
- (Arantxa): bai. Lokepasake guk Santa Agedara betik, hor zela piñudixa egoten zan, oso gauza illuna zan, betik Santa Agedan itten gauen bizimodua. Eta bueno, ba gero kamiñua in zanian be Santa Agedatik in zan, eta ze in gauen ba elizaz kanbixau, Santa Ageda izan biharrien, edo Garagartzza izan biharrien, Santa Ageda. Jaixotez ni Garagartzzan bautizauta nau, e? Neure umiek ez baiña ni bai, eta horreik be bai.
- Oseake Garagartzak orduen parroixia eueken?
- (Arantxa): eta oin de badauko Garagartzak parroixia e?
- Oñatin be hiru parroixia bakarrik dagoz, Araotzen, Ursulan eta parroixia Oñatikua.
- (Arantxa): a, bai e? Uribarrin be parroixia, Garagartzan be bai. Urbarrin hemen, hemen, eta Santa Agedan, bai.

- Oñatin hiru bakarrik.
- (Arantxa): hemen, Santa Agedan orduen ba klaro, oin jente gutxi dau baiña Santa Agedan orduen jente mordua egoten zan e? Igual emekumetan mille ta bostehun lagun inguru.
- Bai, e? Herrixa izateko moduan zan.
- (Arantxa): bai, izan lekien. "Por habitantes" izan lekien.
- Santa Ageda ospizio edo ze horretan...
- (Arantxa): bai, sikiatrikuan dauen jentiakin eta...
- Milla ta bostehun esan dozu?
- (Arantxa): emakumiak mille ta bostehun bat bai egongo ziren sasoi baten.
- (Asun): artien balnearixua euen e? Hemen goiko etxien balnearixua.
- (Arantxa): bai baiña hori sikiatrikuok etorri aurretik.
- [...] jentia urak hartzera etorten zan?
- (Arantxa): itxuria, ez...
- (Asun): "agua sulfurosa" euen.
- Bai, urak hartzera. Han Ursulan be badago, bi be bai.
- (Arantxa): Santa Agedan asko dau sulfurosa e?
- (Asun): ba honaxe etorten zan.
- (Arantxa): Mojan entrada batien pasaten bazara, ondiok Santa Ageda eugenien, edo ostegunien, jun nitzan bai eta usain bat! Hemen oso asko dau hori urori.
- Orduen horren inguruen sortuko ziren hemengo ospittala eta zera.
- (Arantxa): bai. Lehen aurretik balnearixua zan Santa Ageda, e? Canovas del Castillo Santa Agedan hil zan, hil auen. Eta orduan haren zerian gero montau ziren sikiatrikuak, eta emakumiak asko be gehixago egoten ziren gizonak baiño. Milletik gorago ziren betik.
- Zuk betik ezagutu dozu sikiatrikua?
- (Arantxa): bai. Eta betik ezagutu dot eta ointxe ez. Baiña lehen betik geixuak baserrixetan lanien ibiltten gittuan.
- Bai, e?
- (Arantxa): bai, bai, bai.
- Terapia modura-edo?
- (Arantxa): jeneralien izaten zan baserriko jentie hor ingresaute euen, ba orduan baserri mundua zan. Eta ni akordetan naz garixa jotekuen, garixa ebagittek, lan eta fijo be bai egunero, lo itten barrura baiña goizien etorten ziren armozetan eta afaldu eta gero barrure. Onddiok zenbat urte arte ba, hamar-dozena bat azkena? Urtain hil zala? Ez, hil zan e?
- (Asun): zein?
- (Arantxa): Urtain.

7. Santa Agedako gaixoak tripa-truke lanean

- **Erref:** ARR-042/007
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:19:40. **Bukatu:** 00:22:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Tripa-truke egiten zuten lan Santa Agedako gaixoek baserrietan. Etxean eta etxekoekin bazkaltzea besterik ez zuten eskatzen, eta tabako apur bat. Gaixo gehienak alkoholikoak ziren. Baserrietako oinordetza eskubideak galdu eragiteko ere eramaten omen zituzten batzuk, gezurrezko aitzakiaz. Enuzketa baserrikoek ikusi izan dituzte gaixoak goseak edota zigor latzak jasaten.

8. Gaixoak sokaz lotuta

- **Erref:** ARR-042/008
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:22:44. **Bukatu:** 00:25:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak

Laburpena:

Arantzak zazpi urte zituela, gaixo batzuk elkarri sokaz lotuta ikusi zituzten, zuhaitz baten inguruan bueltaka, zigortuta. Ihes egindako gaixoak auzotarrek itzultzen zituzten ospitalera.

Transkripzioa

- (Arantxa): zazpi urtekin ikusitta daukat, zazpi urte baiño asko gehixau ez neuken, pelikula bat letxe. Hor parrokixia dauen atzian auen pabelloi haundi bat, eta han zeren platanuek, arbolak, eta gehixenak hor egozen geixo agresibuak, eta abare batek erakutsi oskun teillatutik, elixien goiko zeretik. Sotanakin, tunika azul batzuk mahonezkuak, danak burdi-sokiaz lotute alkarri, arbolak erdixen-ta., ta bueltaka.
- Hori zertarako itten euein?
- (Arantxa): zelako pelikulia daukaten! Bueno, zigortuta egozen, eta orduen batek itten beuen, jausten bazan, bestia aurrien.
- Alkarri lotuta.
- (Arantxa): bai. Holako, ez dakit, hiru-lau metroko espazio baten.
- Eta egun dana hantxe bueltaka?
- (Arantxa): ba jare in arte. Ni umie nitzan... zazpi-zortzi bat urte? Igual ez.
- Ba hori ume batek ez eben entendiuko ezebez.
- (Arantxa): grabau jaten pelikulan letxe, in nosten inpresiño bat!
- Personak e? Ganauak baiño okerrago tratau e?
- (Arantxa): bai, bai. Nere aittek ganauak hola ez zittuan tratau, akaso egunen baten emungo utsen, baiña bestela ez. Baiñe orduen zan beste mundu bat uste do nik.
- Bai, kultura gutxi, ignorantzia, ignorantiak.
- (Arantxa): bai, jangoikoa aurrien hartu te egurre.
- Hala arreglaitten zan dana.
- (Arantxa): bai, bai, bai. Ba geixo asko euen, asko, hona ihes egindda eta etorri zenbat? Zemat geixo eruenda ete gaoz gu bueltan!
- (Asun): hona etorri eta ihes egindda, hemendik ihesi, eta etorten ziren hona, eta etorri eta gosiak.
- (Arantxa): ardaua edo zigarro bat-o, orduen Kuarteroia edo izaten zan.
- Kuarteroia bai, ezagutu dot nik be.
- (Arantxa): edo Idealak edo ez dakit holako tabako merke bat betik egoten ziren. Bat o bi emun, engaiñau, eta hala, guazak!
- (Asun): [...] horrax e eruan, eta yaesta, barrure.
- (Arantxa): etorri bixar e? Bai. Orduen telefonorik be ez auen, eta orduen ba entregau itten ziren.

- lhes eginddakuak.
- (Arantxa): bai. Oiñ ez, [...]

9. Gerraosteko Santa Ageda

- **Erref:** ARR-042/011
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:31:31. **Bukatu:** 00:35:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak

Laburpena:

<p>Lehenago harreman handia izaten zuten Santa Agedako gaixoekin, batez ere baserrira lanera etortzen zirelako. Orain, orde, gaixoak askoz ere gazteagoak dira eta beste baldintza batzuetan bizi dira. Asunzonek dio gerraostean egunero hiltzen zirela gaixoak gosez. Dirua aurrezteko hilkutxa bakarra erabiltzen zuten hildako guztien gorpuak hilobi zuloetara eramateko.</p>

10. Enuzketan izan zuten azken gaixoa

- **Erref:** ARR-042/012
- **Iraupena:** 0:04:09. **Hasi:** 00:35:16. **Bukatu:** 00:39:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak
- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Eskulan merkea zen, baina denen onurarako, bai gaixoentzat eta bai baserritarrentzat. Gaixo batzuk urteetan langile finkoak izan ziren Enuzketan. Baserriko lan guztietan jarduten zuten gaixook. Azkenengoa duela hamabi urte inguru izan zuten. Edana zaindu behar izaten zioten bakarrik. Azkenengo Enuzketan egon zen langile hau anaiarekin haserretutako maiorazko bat zen.

11. Asuni tiroa gerran

- **Erref:** ARR-042/013
- **Iraupena:** 0:03:52. **Hasi:** 00:39:25. **Bukatu:** 00:43:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

Asunzion 1924an eta Arantza 1947an jaio ziren. Asunek tiro bat bota ziotenean hartu zuen sustoa kontatzen digu. Gerra zenean, bizimodua ahal zenik eta era normalenean egiten zuten, egunerokoak eginez, gerra girora ohituta.

12. Gorriak (soldaduak) etxean

- **Erref:** ARR-042/014
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:43:17. **Bukatu:** 00:46:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Gerra denboran errotak zigilatu egin zituzten. Frontea Gesalibarren egon zenean, Enuzketa baserrian miliziano gorriak egon ziren. Baserria biltegi bihurtu zuten; kontserbako janariz, oinetakoz eta bestelakoz bete zuten.

Transkripzioa

- Gerra denporan?
- (Asun): bai, bueno, gerria aurrera jun zanian, baiña berandu artien ez. Baiña guk etxien garixa zelan hartzen gauen, ba etxien, baiña gero honeik [...] errotia geuken guk hor, etxien garixa hartzen gauen, errotan garixori ixo eta etxien ogixe itten gauen. Baiña gero hasi ziren errotia prohibiuten.
- Bai, prezintau in zittuein.
- (Asun): prezintau. Eta ha prezintau auenien, baserritar bakotxairi ez dakit zenbat anega aiuntamientuan entregau eragitten oskun. Ha aiuntamientuara entregatera juan in bihar neguen. Patatak be bai, eta milizianuak, gorrixek, egon gintzan denpora dana, geu; sukaldia aukien Santa Agedako medikuen etxien, sukaldia aukien hona janarixak igoteko, astuakin janarixak igoten otsien soldauari. Ba haxe zan, alde bat, pittin bat haundituagua hor [...] hau egon zan toperaiño beteta, toperaiño, atun latak, antxoak, sardiñak, eta txokolatie torriek, torriek e.
- Gorrixentzako?
- (Asun): Gorrixendako ekarritta. Eta tabakuak, bueno, nik ez dakit zenbat, zelako kajakadak tabakuak etorri.
- Eta zenbat soldau inguru egozen ba hemen?
- (Arantxa): hemen zera euen...
- (Asun): frentia eukien.
- Frentia ber-bertan egon zan?
- (Asun): ber-bertan, ba Larratxutik hau, Larratxu... hementxe, hemen zuk igo zauen ba Baztergaiñera? Han Baztergaiñen ha lautada bat badau ba?
- Bai.
- (Asun): handik lautadatik, Larratxutik lautadatik Murugaiñera zerraduria in euen.
- Zerraduria e?
- (Arantxa): nazionalak alde baten eta bestiek beste aldien.
- (Asun): reketiak pasau ez daittezen bestiek hara, zerradurie, hemengo gizon guztiek ibili ziren [...] hareik zerradurak egitten, eta hemen etxien orduentxe sartu ziren katiuskak.
- Soldauak katiuskakin.
- (Asun): soldauentzako katiuskak, baiña...
- Hemen abarkak, ezta?
- (Arantxa): honbre! Fabrikako gure denporan be bai e?
- (Asun): katiuskak, zelako katiuska pilluak, zakukadak e! [...] danak errepartiu ziren.

13. Ogia garesti gerra osteko gosetean

- **Erref:** ARR-042/015
- **Iraupena:** 0:03:19. **Hasi:** 00:46:20. **Bukatu:** 00:49:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Gerra osteko gosetean, eurek patata-hazia sartu zuten soroan; baina, gauez, norbaitek hazi guztiak atera eta eraman egin zituen jateko. Ogia lortzeagatik, Asunek bere bizia arriskuan jarri zuen.</p>

Transkripzioa

- (Asun): Baiñe falta, falta gerra denporan geuk esateko moduen, falta izan gauena izan zan ogixe, ogirik ez.
- (Arantxa): Honbre, baserrixen holako situaziño baten, bueno oin be ogixe eta olixue faltauko leixkio. Zer jana ba ez dakit. Guri faltetako, beste askoi be faltako litxakio, ez?
- Guri Oñatin baserritar batzuk esan doskue gerra ostetxuan kaletik, kalien jentia dirua bai baiña jatekorik ez. Eta faten zirela eske baserrittara, zerbait jateko faborez.
- (Arantxa): Honek esaten dau, patatie erein eta hazixe atara gabien.
- (Asun): Patata-sailla sartu guk...
- Eta hazixa etara, jateko?
- (Asun): Gabien. Patata-sailla dana patata-hazixe dana atara, eta bape barik itxi.
- Hori sekula entzun barik neuken.
- (Arantxa): Hemen bai, esaten daue.
- (Asun): Eta gorrixek, eta... bueno, reketiek zien hona etorri zienak lehenengo, haik ez zien personak e? Hareik salabajiek zien.
- (Arantxa): Kontuz berba eizu, bestela kartzelara igual erungo zaue eta.
- (Asun): Erueten banaxone, ez jak... urtebeteko bizixe jaukenat eta. [...]
- Eta ogixe falta gauen. Gu gintzonan, zenbat? Hiru, lau, sei neska. Sei neska gu etxien, eta aitta-amak eta aittajaun-amandriek. Eta hor ikusten dou reketien banderie Murugaingo puntan. Eta ordurako Mondraueko miliziano bat hil euela Untzillen eta beste ez dakit nun hil euela beste bat eta horreik danok entzunde eta banderie ikusi gauenien, " ene ba! Horreik ogi zurixe jakarrek". Guretako ogi zurixe zan, besteik ez geuen falta guk, ogixe. Ta gu sei neska, hor [...] beste sei, danok urteten dogu kuadrillan, ogitten, zera, Murugaiñera, eta ikusten gaue Larratxutik [...] ekiten dosku /ekitosku/ tiroteue, goiko puntatik etorri zien aiñeke geuana reketiek, hil in biher giñuela ta: "esos niños le van a matar". Ta etorri ta ebatu oskun ta "¿pero a dónde vais?" ta "a por pan blanco", erderaz be ez gekixen, "a por pan blanco", ta motxillatik atara eta holako txusko bana emun oskuen eta buelta ein ta etxera.
- Zenbat urte zeukatzun zuk orduan?
- (Arantxa): Hamahiru-hamalau, ez?
- (Asun): Hamalau ez, hamahiru urte. Hamahiru. Baiñe orduko gauzak goguen gehixau atzokuek baiño.
- Bai, akordaitteko modukuak dira horreik, e?

14. Arropa zuriak zelaian zabalduta

- **Erref:** ARR-042/016
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:49:39. **Bukatu:** 00:52:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Lehengo baserritarrak bizi zitezkeen baserritik, baina oraingo bizimoduarekin ezinezkoa da. "Lexibia" egiten zuteneko kontuak. Etxean ez zeukaten urik.

15. Argi gutxi etxean

- **Erref:** ARR-042/017
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:52:06. **Bukatu:** 00:55:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Argia Santa Agedako zerratokitik ekartzen zuten Iberduerok linea jarri zuen arte. Karburo kriseiluak ere erabiltzen zituzten.

16. Prakarik ez!

- **Erref:** ARR-042/018
- **Iraupena:** 0:03:37. **Hasi:** 00:55:18. **Bukatu:** 00:58:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Errepidea egitea aurrerapen garrantzitsua izan zen. Ordura arte lanera oinez eta bizikletaz joaten ziren. Eta orduan emakumeek ezin zuten prakarik jantzi! Arantzak 17 urte zituela arazoak izan zituen behin meza entzuteko, prakak jantzita zihoalako.

Transkripzioa

- (Arantxa): kamiñua beste bat. Nik egitten nauen, Amaten ni hamasei urteaz lanien hasi eta ibilli nitzan hamar urte, ezkondu arte. Gero ezkonduakuan ya etxera e? Orduen emekumiak ezin leikien jarraitu lanien. Eta hemendik Santa Agedara oiñez, eta Santa Agedatik Arrasatera bizikletan, relebuan. Ordu bixak arte in eta atzera hona oiñez.
- Eta zer zeukatzun, itxabolan bat-edo bizikletia izteko?
- (Arantxa): bai, hor abare etxien auen holako oillategi bat eta hantxe izten gittuen bizikletak. Eta abarkak. Hemendik Santa Agedara busti-busti itten nitzan.
- Eta aterri baeuen Santa Agedatik hara sikatu, ezta?
- (Arantxa): klaro, askotan. Kanbixaiteko be lau pare fraka. Frakak ez, orduen frakak etorri zirenien, bueno!

- (Asun): frakak etorri zirenien nik makiña bat aldiz esan donat, hori inbentau auenak homenaje bat.
- (Arantxa): oin relebuen lanien juten diren andrak...
- Frakak andrantzako.
- (Arantxa): bai.
- Lehen andrak ezingo zauen frakarik jantzi.
- (Arantxa): ez, ez. Ni akordetan naz, orduen banaukan nik hamazazpi bat urte-edo, Etxanen, gaupasa bat in biher gauela, kuadrillia giñen, neskatiñak. Eta afaldu gauen urdaiazpikua tomatiaz, eta paraguaiuak eta kafe. Eta gero erateko orduan, nik ez dakit ze eraten zan, “cuarenta y tres”-edo, eta ez zakurik, ez mantarik eta ezer, etxabola baten hotzak akabetan. Hartu dogu kafe mordo bat, errebentau ez gauenien Nescafe pote bat hartu gauen, lau basotan-o. Hurrengo egunien jaiki eta mantzeliña, besterik ez auen jateko, eta han baten batek arrautza batzuk eta patata batzuk, tortilla de patata. Mezetara faten gara frakakin eta abariak esan zoskun handik kentzeko, frakakin ezin lekiela emakumiak elizan egon ta.
- Zenbat urte zeukatzun zuk orduen?
- (Arantxa): hamasei bat, hamazazpi bat urte? Abare zahar batek elizan atenziñua deitu zoskun.
- Ez da hori aspaldiko kontua.
- (Arantxa): ez, ez.
- Ba ni jaixo nintzanian zuk horixe eukiko zebe gutxi gorabehera.
- (Arantxa): bai. Atenziñua deittu oskun frakakin jun gixelako. (...)
- Zeozer esan biher...
- (Arantxa): atentziñua deittu zoskun hala ezin lekiela elizan egon.
- Urten in bihar izan zeuen?
- (Arantxa): guk barre. Ordureko ha Etxanen, ha abare zaharra zan eta Etxanen bizi zan, baiña gu Mondrauen bueltaka bagebitzen eta pixka bat, ez dakit ba, espabillauak ez dakit izango giñan baiña behintzet zerbait gehixau ikusitta-edo.
- Bai, ez ziñein baserri zulokuak.
- (Arantxa): ez.
- Kalia eta ezagututa ya.
- (Arantxa): kalien lanien gebitzen, eta lanien dabillena ba aber!
- Bai, eta ikusiko zenduen beste batzuk be frakakin ibiltzen zirena.
- (Arantxa): bueno, ba gu bakarrik ez giñan izango.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-03-05

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com